




# Laurehun lagun izan dira Ernio inguruko zortzi herrien arteko ibilaldian

**EGURALDIA** ▶ Ateri iraun zuen eguraldiak ibilaldian zehar, baina lokatz handia izan zuten ibilbide osoan ▶ 5



Igandeko ibilaldiko parte-hartzaileak Larraulgo kontrolean seilatzen. JOXEMI SAIZAR



OLAIA ESKITXABEL

## Alejandro Gonzalezen erakusketan ura da ardatza

**ALEGIA** ▶ Guztira hamahiru koadro daude ikusgai Jubilatuen tabernan; paisaiak dira nagusi, olioak eta akrilikoak ▶ 7

**LARRAUL** ▶

## Finaletarako bikoteak erabakita Aiztondon

Asteburuan jokatuko dira Adunan ▶ 4

**BERROBI** ▶

## Hasi da XIV. Kultur Astea, adin guztietako lagunentzat prestatua

Atzo buruhandia eta gimnasitika izan zen; gaur, ipuin kontaketa ▶ 6

"... ez utzi biharko; etor zaitez gaur Estetikako Zentru Integral berria ezagutzera..."



Estetikako Zentru Integrala

**Maite**

Calle Herreros - TOLOSA - 943 67 03 38

Iratamendu eraginkorra emaitzak nabari dira

XIV ORDUKO IBILALDIA ▶

# Ibilaldiaren atarian, 3.000 lagun inguruk eman du izena

Ibilaldirako sei egun falta direnean, antolatzaileek buru-belarri jarraitzen dute lanean; azken ukituak izan ezik, dena prest da igandeko mendi festarako



2000. urteko XIV Orduko Ibilaldiko parte-hartzaileak, Aralarko belazeetatik igarotzean. TOLOSALDEKO HITZA

## LEIRE MONTES

Martxaren eguna arte, igandea arte, hain zuzen, ez da jakingo aurtengo XIV Orduko Ibilaldia- ren parte-hartzaileen behin betiko kopurua. Baina ibilal- diaren atarian espero zutena «betetzen» ari dela diote Arala- ko Adiskideak-eko antolatzaile- ek: dagoeneko 750 taldetik gora osatu dira. Hau da, 3.000 mendizale eta ibiltari inguruk eman dute izena. Duela lau urte 3.000 lagunetik gora hartu zuen parte ibilaldian, eta aur- ten ere martxak «antzeko kopu- ruan bilduko» duela diote.

Ibiladiaren eguna arte zaba- lik jarraitzen du izena emateko epea. Ostirala bitarte, 10:00eta- tik 13:00era goizez eta 16:00- etatik 19:00etara arratsalde, Aralarko Adiskideen bulegoan eman daiteke izena (Araba etorbidea, 5-behea, Tolosa). Egunean bertan, berriz, lehen- dabiziko taldeak abiatu aurre- tik egingo dira izen-emateak; hau da, goizeko bostak baino lehen, irteera gunean, Berazu- bi kiroldegia- ren aldamenean

## Aholkua: oinetakoak

Oinetakorik egokiena oineta- ko lesioez eta txonkatiletako lesioez eta erorketez babestu- ko gaituena izango da. Horre- tarako zola ona izatea eta txonkatila ondo eustea kome- ni da.

Zapatilen aldekoak direnek kontu handia izan beharko dute Atatik San Miguelerako igoeran eta Minetatik Amez- ketarako jaitsieran, inguru ho- riek leku harritsuak eta arris- kutsuak direlako, batez ere eurria egiten duen egunetan.

dagoen Paper Eskolako ata- rian.

Antolakuntzako kideek lane- an buru-belarri jarraitzen dute, eta azken ukituak izan ezik, dena prest da igandeko mendi- ko festarako.

69 kilometroko ibilbidea beh- har bezala markatuta eta ego- kituta egongo dela ziurtatu dute antolatzaileek. «Era bere- an, Tolosa, Uli, Gorriti, Lekun-

Aukeraketa ona izan daiteke Amezketan botak kendu eta zapatilak janzteak, Berazubiko helmugaraino falta den erre- pida zatia egiteko.

Diseinu teknikoko galtzer- diak erabiltzea komeni da, kosturarik gabe eta igurzeta handiko puntuetan sendotuta daudenak, babak eta oinen beroketak sahiesteko. Eta al- datzeko galtzerdi pare bat era- man motxilan badaezpada. ◀

RAMON GARATE ▶ EUSKAL MENDI FEDERAKUNTZAKO KIROL MEDIKUA

berri, San Miguel, Igaratza, Amezketak eta Alegiako kontrol eta hornidura guneak bolunta- rior eta elikagaiez ondo pres- tatuta egongo dira».

Bestalde, parte-hartzaileen segurtasuna eta osasun zain- tza arduratzeko, Gurutze Go- rriaren eta Euskal Mendi Fede- rakuntzaren laguntza izango dute antolatzaileak. Gurutze Go- rriko 60 kidek ibilbide osoa

## XIV Orduak HITZA-n

Igandean mendiko festa han- dia biziko da eskualdean, eta Tolosaldeko HITZAk ere festa horrekin bat egin nahi du. Horregatik, tratamendu bere- zia eta informazio zabala eskainiko du egunotan XIV Orduko Ibilaldira buruz.

Larumbata bitarte egunero emango du ibilaldiaren ber- ri: historia, elkarrizketak, argazki zaharrak, aholkuak... Igandean, berriz, gehigarri berezia argitaratuko du.

Eta astelehenean, ohi ez bezala, HITZA eskualdeko etxeetara iritsiko da ibilal- diaren informazio zabala es- kaintzeko. ◀

hartuko dute, eta Federakun- deko erreskate taldeak Atako igoeran eta Arritzagako meha- tzeetako jaitsieran lagunduko diete.

## Kiroldegia, bezperatik irekia

Berazubi kiroldegia bezperatik zabalik egongo da. «Gauko lo kuluxka bertan egiteko asmoa dutenek, beraz, hara joan bes- terik ez dute». Lotarako kolto- netak, komunak, dutxak, argin- darra eta, oro har, kiroldegia- ki dituen zerbitzuak XIV Orduko Ibilaldiaren parte-hartzaile- en eskura egongo dira.

«Tolosa eta tolosarrok, eta baita ibilbidea prestatzen de- neko herri eta herritarrak ere irrikaz zain gaude mendizale eta ibiltariak noiz etorriko», diote antolatzaileek.

Informazio gehiago nahi duenak aurtengo ibilaldiaren inguruan sortutako webgune- an aurki ditzake xehetasun guztiak: www.xivorduak.com. Ibilbidea, mapa, profila, araute- gia, argazkiak eta bestelako in- formazioa jaso daiteke bertan.

AHT ▶

## Jardunaldien lehen saioa, gaur, Kultur Etxean

Tolosaldeko AHT Gelditu! El- karlanak *Abiadura Handiko Trenaz* jardunaldiak antola- tu ditu aste honetarako. Gaur izango da lehen mahai-ingu- rua: Iñaki Antigüedad EHUKO ikertzaileak, Josu Larrinaga soziologoa eta EHUKO irakas- lea eta Mikel Alvarez AHTren Aurkako Asanbladako kide- ak *AHTren aurkako arra- zoiak eta egitasmoaren egungo egoera* izango dute hizpide, 20:00etan, Kultur Etxean. Joxemi Saizar Tolo- saldeko HITZAko zuzendariak aurkeztuko du saioa.

DEIALDIA ▶

## Tolosan bizi diren ataudarren afaria

Tolosan bizi diren atauda- rrek afaria egingo dute hila- ren 28an. Afarira joan nahi duenak izena eman behar du 943 65 29 41 telefono zenba- kian. Fronton kafetegian da hitzordua, 21:00etan. Iaz, le- hendabizikoz, 19 lagun bildu ziren.

ERAKUSKETA ▶

## Kubako haurren marrazkiak Kultur Etxean

Amigos de Cuba y P' alante elkarrekin antolatuta, Kubako haurren marrazkiak ikusgai dira egunotan Kultur Etxean. Ostirala bitarte bisita daiteke erakusketara.

HITZALDIA ▶

## Nabarralde ekimenaren aurkezpena, bihar

Ezker abertzaleak antolatu- ta, Nabarralde ekimenaren hitzaldi-aurkezpena izango da bihar Erlantz Urtsun Na- barraldeko kideak *Nafarroa osoa* hitzaldia eskainiko du, 20:00etan, udaletxeko batzar aretoan.



# www.tolosaldeko hitza.info

▶ sar zaitetz eskualdeko web atarira ▶ inkestak, eztabaidak, eguneko albisteak, argazki bildumak, zerbitzuak, zorion agurrak...

ASTEBURUKO ESKUALDEKO KIROL EMAITZAK ▶

ARETO FUTBOLA

1. maila.

Plaza Berri Sport-Laskorain A	4-2
Cash Converters-Zaldibi	2-2
Antiguako-Trans. Lacunza	2-8

2. maila.

Alegi Calcinor-Antxeta bod.	7-1
Tecnun-Eskolapios	1-5

Ohorezkoa.

Hegoalde-Foticos Zaragoza	5-1
Saillkapena ▶	
1. Femesala Elx	64 puntu
2. UCAM Murcia	53 puntu
3. Futsi Navalcarnero	43 puntu
4. Tecnocasa Mostoles	41 puntu

5. Foticos Zaragoza	35 puntu
6. Hegoalde	32 puntu
7. Teledeportivo	31 puntu
8. Kettal Fuenlabrada	30 puntu
9. Emparesa Ferrol	26 puntu
10. Ourense	25 puntu
11. Racing Delicias	23 puntu
12. Nazaret	21 puntu

Autonomikoa.

Usabal sagardotegi-Moulinex	2-5
-----------------------------	-----

1. nazionala B.

Laskorain-USZ Coop	5-5
--------------------	-----

FUTBOLA

Goren maila.

Ordizia-Tolosa	3-3
Saillkapena ▶	
1. Elgoibar	63 puntu
2. Berio	63 puntu
3. Zarautz	57 puntu
4. Arekabaleta	54 puntu
5. Mondragon	54 puntu
6. Tolosa	53 puntu
7. Hondarribia	51 puntu
8. Anaitasuna	50 puntu
9. Trintberpe	49 puntu
10. Aloña Mendi	48 puntu

Lurreldekako 1. maila.

Inburre-Zarautz	2-5
Tolosaldea-Bergara B	6-3

Lurreldekako 2. maila Kopa.

Amaroz-Urki	bertain behera
Eibartarrak-Danena	3-0

Gazteen 1. maila.

Billabona-Internacional	8-4
-------------------------	-----

FUTBOL 7

1. maila A

B. Ignacio Hondar-Ibarrako GA	1-4
Zardoya Otis-Lanbroa Dickens	2-5

PILOTA

HITZA txapelketa.

Benjaminak

Zelaia-Labaka/Artola-Encinas	10-16
Salaberria-Matxinea/Imanol-Maiza	16-8

Galaraga-Aburuza/Arrospide-Ormazabal	16-3
Amiano-Rezola/Garin-Ansa	2-16

Alebinak

Aizpuru-Aizpuru/Agirre-Mancisidor	16-5
Lasa-Lopetegui/Arruti-Otaegi	10-16
Gorostidi-Gallurralde/Zinkunegi-Oruna	16-6
Irastorza-Santxo/San Sebastian-Castro	13-16

Infantilak

Erauskin-Llobregat/Pagola-Garmendia	9-18
Lasa-Romero/Olaeabea-Sagastibelza	4-18
Perez-Urkola/Olazabal-Urruzola	12-18
Arrieta-Fernandez/Agirrebala-Arakistain	6-18

Etorkizunekoak

Errazkin-Irureta/Bengoetxea-Betelu	22-20
Apxe-Otxotorena/Mazkieran-Lagos	22-15

ARETO FUTBOLA ▶

# Hegoaldeki ziurtatu du jada Ohorezko Mailan jarraituko duela

5 eta 1 irabazi zion larunbatean Foticos Zaragoza taldeari; seigarren dira tolosarrak saillkapen nagusian 32 punturekin

IRATXE ETXEBESTE

Hiru jardunaldi baino ez dira geratzen denboraldia amaitzeko, eta Hegoaldeki badaki jada hurrengo denboraldian ere Ohorezko Mailan jardungo duela. Asteburuko hiru puntuek, eta gainerako jardunaldien emaitzen eman dute azken kolpea.

Neurketa arraroa izan zen Foticosen aurkakoa. Lehen zatian Hegoalde nagusi izan bazen ere, aldageletara markagailua kontratan zutela joan ziren. Gol aukera asko sortu zituzten tolosarrak, eta ondo aritu ziren jokoan, baina, aukeran, azkartasuna izan zuten faltan. Hori, eta zorrotztasuna gola egiterakoan. Zaragozakoek ez zuten arriskurik sortu, gogor jokatu zuten; hori bai: epaileek ez zuten lan ona egin gogortasun hura baretzeko, eta horrekin nahikoa ez, eta Hegoaldearen aurka oso falta inozoak eman zituzten. Hamargarren minuturako bost falta zituen Hegoaldeki eginak, eta defen-

tsan arinago ibili behar izan zuen horregatik. «Seigarren faltaren zigorra hogeit segunduren faltan etorri zen, eta gola egin zuten aurkariek», esan dute Hegoaldekoek. Bigarren zatia hasterako jarrera biziagoa agertu zuten Tolosakoek. Partidua bere egin nahi zuten gehiago itxaron gabe. Lan txukuna eginez iritsi ziren golak bata bestearen atzetik; lehena lortu baino lehenagotik aukera asko sortu zituzten Amilibiaren neskek. Foticosek ez zuten gol aukera bakar bat bera ere sortu bigarren zati horretan.

Azken aurrena etxean

Berazubin denboraldi honetan jokatuak azken aurreko partidua zen larunbatekoa. Hilaren 22an jokatu dute azkena etxean, eta zaletuei eskertza agertzeko eta omenaldia eskaintzeko gogoz daude taldekideak. Jardunaldi horretan lortutako garaipenari esker Femesala Elxek irabazi du Liga. Hiru partidu falta direnean 21

neurketa irabazi ditu, bat berdin eta beste bat galdu: Hegoalderen aurka. Hegoalde bakkirik izan baita aurten Elxeri irabazteko gai, eta, gainera, han, Elxen lortu zuen balentria hori: 2-3.

Bada 5 eta 1 nagusitu ziren Hegoaldekoak larunbatean. Seigarren da orain saillkapen nagusian, 32 punturekin. Nerea Salazarrek, Miriam Aranek, Itziar Aldezabalek, Isa Barriok eta Itziar Aldezabalek egin zituzten etxeko golak, eta Amilibiak bederatzita neska atera zituen kantzara: lau lehen taldekoak eta bost bigarrenekoak. Goleatzaileez gain Nerea Arana, Lourdes Zuriarrain, Itxaso Martinez, Idoia Laguardia, Miriam Prados eta Isa Blanco aritu ziren jokatzeko.

Bestalde, Hegoaldeki Logroñoko hiruko torneoaren hartu zuen parte igandean, eta irabazi egin zuen. Pacharan La Navarria eta Diamante taldeen kontra aritu zen; Diamante talde errioxarra Ohorezko Mailara igotzeko ahaleginean dabil.

ARETO FUTBOLA ▶

## Laskorainek ezin izan du berdinketatik pasatu

5-5 berdindu zuen Laskorainek Urretxuko taldearen kontra; bi partidu falta zaizkie

I. ETXEBESTE

«Alternatibaz jositako norgehiagoka jokatu genuen larunbatean jomuga guztiz desberdinak ditugun Laskorain eta UZ S Coop taldeek Berazubiko ohol zaharkituan». Lehena saillkapeneko hirugarren eta, agian, bigarren postua eskuratzeko ahaleginean dabilen bitartean, bigarrenek jaitserakoetatik aldegitia dute helburu. Bien artean banatu zituzten puntuek inor gutxi asetu bazuten ere, urretxuarrei arnasa hartzeko balio izan diela esan daiteke.

Baja mordoarekin egin behar izan zioten aurre partiduari: Barriola, Sanz, Telletxea eta Aitor Lasa. Jon Arregi filialeko atezaina izan zuten, bestalde, eta minuturik jokatu ahal izan ez zuten arren laster defenditu ahal izango du Tolosaldea atea. Mikel Altuna ere taldera itzuli berri da bost aste Brasilen egin eta gero.

Laskorainekoek ongi ekin zioten norgehiagokari eta behereala aurreratu ziren Andoni Saldiasen golari esker. Hala ere, urretxuarrak ez ziren koldu eta partiduak haientzat zuen garrantziak gidaturik markagailuari buelta eman zioten. Atsedenaldira 1 eta

2ko emaitzarekin erretiratu ziren bi taldeak.

Bigarren zatian ere horiak izan ziren lehenengo kolpea jo zutenak binakoa ezarri. Yustos izan zen golaren egilea, jokaleku guztia zeharkatuta. UZ S Coop-ekoak horien bi hutsategitez baliatu ziren 2 eta 4koa lortzeko. Dena den, Laskorainekoek berdinketa lortu zuten berriz ere baloi geldiko bi jokaldirekin: Saldiasek penaltiz egin zuen eta Yustosek faltaz.

Garaipenaren atarian


Bazirudien horiek garaipena lortuko zutela, baina urretxuarrak izan ziren Domenetxeren ate aurrean asmatu zutenak haien bosgarrena lor-tuz. Altunak egin zuen azkena, botatko bi penalti bikoiztetako bat sartuta. Domentxe, Saldias, Beldarrain, Bengoetxea, Alonso, Arregi, Yustos, Gil eta Altuna jokalaririk, Javi delegatua eta Iñaki Egizabal eta Xabier Lasa entrenatzaileek jardun zuten larunbatean.

Bi jardunaldi falta zaizkie Laskorainekoei eta 6 puntuak lortzea dute helburu, saillapenaren ahalik eta gorenaren amaitzeko. Hurrengo asteburuan atsedean jardunaldia dute Tolosako jokalariek.

HITZA, egunero zure etxean jaso nahi baduzu deitu

943 30 43 46

Edozein kexa, iradokizun edo kezka argitzeko ere bai



LARRAUL ▶ KIROLAK



Jon Ander Etxeberria eta Jon Ortiz bikotea, Enrique Piedra eta Oscar Petiscoren aurka asteburuan. G. AZKUE

# Aiztondo txapelketan sailkatu dira jada finalerako bikoteak

Finalerdiak Larraulgo pilotalekuan izan ziren larunbatean; Etxeberriak eta Ortizek lortu zuten finalerako txartela

**GARAZI AZKUE**

Aiztondoko pala eta frontenis txapelketan, sailkapeneko azken partidak jokatu dira jada. Asteburuan, Larraulen izan ziren pilotariak, eta, finalerako txartela lortu zuten batzuk.

Frontenis mailan, Jon Ander Etxeberriak eta Jon Ortizek, Enrique Piedra eta Oscar Petiscoren aurka egin zuten Larraulgo Murgilazpi pilotalekuan, Etxeberriak eta Ortizek 25 tanto egin zituzten, eta, Piedrak eta Petiscok 9.

Iñaki Muruak eta Martin Artolak, Larreta eta Gurrutzagaren aurka jokatu zuten frontenis partida aurrez, eta, azkenean Muruak eta Artolak

jokatuko dute finaleko partida Adunan, 25 eta 16 egin baituzten.

Palari dagokionez, mutilen artean, Juan Carlos Urdanpiletak eta Jabi Otermin, Mikel Larrarte eta Mujikaren aurka jokatu dute finala datorren larunbatean.

Nesken pala txapelketan, berriaz, Naiara Artola eta Oihane Arizetak ez zuten jokatu partidarik, beraz, Ana eta Miren Amonarrirek irabazi zuten finalerako txartela.

Honenbestez, asteburu honetan, ondoko bikoteek jokatu dute finaleko partidak Adunan. Frontenisean, Jon Ander Etxeberriak eta Jon Ortizek, Iñaki Murua eta Martin Ar-

tolaren aurka egingo dute. Pala txapelketan, mutilen artean, Juan Carlos Urdanpileta eta Jabi Otermin, Mikel Larrarte eta Xabier Mujikaren aurka arituko dira. Eta, nesken artean, berriaz, Ana eta Miren Amonarrirek Nagore Ezeiza eta Alaine Etxeberriaren aurka egingo dute.

Finaleko partidak 16:00etan hasiko dira Adunako pilotalekuan. Bikote irabazleek, Donostiako La Perla talasoterapia zentruan ordu eta erdiko zirkuetoa eta 30 minutuko masajea irabaziko dituzte bi pertsonentzat.

Eta gainerako parte-hartzaileen artean sariak zozketatuko dira.

AIZTONDO ▶ INGURUMENA

## Olio bilketa egingo dute bihar Aiztondon zehar

Zizurkilen 9:00etan hasiko da, eta Adunan 11:15etik aurrera ibiliko dira auzoetan



Olio bilketarako furgoneta. AMAIA BELAUNZARAN

**G. AZKUE**

Erabilitako olioak eta hondakin arrisksutsuak bilduko dituzte bihar Aiztondoko herrietan zehar. Etxeetan erabilitako olioak jasoko du furgoneta batek, eta horretaz gain, pinturak, pilak, kolak, garbiketa produktuak edota telefono mugikorrek jasoko dituzte.

Bihar, Aiztondoko herrien hasiko dira 9:00etan eta 10:00ak arte egingo dira Pa-

susen. Ondoren, Zizurkil gora igoko dira, 10:30etik 11:00ak bitarte ibiliko dira.

Eta ondoren Adunara joango da furgoneta, hemen ere bilketa ibiltaria egingo dute auzoetan barrena. Adunara 11:15ean iritsiko dira, eta, 11:45ak bitarte egingo dira.

Larraulen eta Asteasun, berriaz, datorren ostiralean izango da bilketa; 9:00etatik 11:00etara Asteasun eta 11:15etik 11:45era Larraulen bilketa ibiltaria.

VILLABONA ▶

### Hirugarren postua Eresargi Txikirentzat

Villabonako Eresargi txiki abesbatza Alacanteko Torrevieja herrian izan da asteburu honetan, urtero antolatzen den Habanera lehiaketan parte hartzeko. Hamaika talde aurkeztu ziren eta hirugarren postua lortu zuten billabonatarrek. Bestalde, martxoan, Avilesen (Asturias) izan zen taldea, 2004ko abesbatzen nazioarteko jaialdian, «oso pozik» egin zuten etxerako buelta.

LARRAUL ▶

### Ostatuta kudeatzeko lehiaketa

Larraulgo taberna-jatetxea kudeatzeko lehiaketa publikoa ireki du Udalak. Orain arte egon diren tabernariak utzi ondoren, kudeatzaile berriak eskatu ditu Larraulgo Udalak. Ekainaren 2a arte egingo da izena emateko epea irekita udaletxean. Kontratua, lau urtera arte egingo da luzatzerik. Informazioa edo dokumentazioa eskatzeko udaletxera joan beharko da.

**ABURUZA** Eraikuntzak, S.A.

Kale Berria, 46 behea • Tel.: 943 69 02 97 • Fax: 943 69 00 52 • 20150 VILLABONA

**Euskal Garden**  
POCIELLO MAQUINARIA S.L.

Zure lorategirako aukerarik zabalena  
gure 1500 m<sup>2</sup>-ko erakusketan

Errekalde etorbidea, 53  
(Coca-Cola ondoan)  
Tel.: 943376292  
DONOSTIA

WWW.ALPEX.COM

50. urteurrena

Outils WOLF  
www.outils-wolf.com



## ANOETA ▶

## Jubilatuen irteera Santanderreko Itsas Museora

Hilaren 26an izango da, eta joan nahi duenak zazpi euro ordaindu behar ditu

B. IRAOLA

Anoetako jubilatuek Santanderrera joateko txangoa antolatuta dute. Hilaren 26an, asteazkenez, izango, da, eta Santanderreko Itsas Museoa ezagutzeko aukera izango dute.

Autobusez egingo dute bidea, goizeko zazpitan herriko plazatik irtengo dena. Santanderrera bidean Quevedan geratuko dira, gosaria egiteko. Gosaltzeaz gain Raquelnort enpresa ikustera joango dira, eta euren produktuen promozioan parte hartuko dute.

Bazkaria ere bertan egingo dute. Sardinaren Festa Handia egitekotan dira, eta bertan izango dira ibilaldira joaten direnak. Hasteko garbantzu potajea tripakiekin izango dute, eta ondoren sardina parrilada. Bazkaria bukatzeko postrea izango da, eta edateko nahi adina sangria.

### Itsasoko museoa

Bazkaria bukatu ondoren, Santanderrera bidea hartuko du autobusak, bertan Itsas Museoa bisitatzeko. Museoa asko ez dela ireki dute, eta akuario handi bat du. Akuario horretan Kantabriako itsasoak duen fauna eta flora ikus daitezke, bere ekosistema bertan.

Akuarioaz gain, ordea, itsasoarekin lotutako beste hainbat gauza ere ikus daitezke. Besteak beste, maketaz betetako gela bat dago, non itsasontzien erreproduktzioak ikus daitezkeen. Garai guztietako ontziak ikusgai izateaz gain, egiteko erabiltzen zituzten teknikak nola-koak ziren ere azaltzen da bertan.

Maketez gain ikus-entzuteko emanaldi bat ere izango da, baita arrantzaleei deditakutako erakusketa bat ere.

Egunpasa honetara joan nahi duenak maiatzaren 24ra arteko epea du izena emateko. 7 euro balio du, eta jubilatuen egoitzan eman behar da izena.

## HERNIALDE ▶ KIROLA

# Laurehun lagun Erniopeko Ibilaldian

Eguraldi pattala izan arren, ez zuen euririk egin

BIANDITZ IRAOLA

Giro eskasarekin baina euririk gabe egin zen herenegun Erniopeko Zortzi Herrien IV. Ibilaldia. 467 lagunek eman zuten izena, baina azkenean 408 atera ziren Hernialdeko plazatik, eta horietatik 368 izan ziren hamaika orduren ondoren proba bukatzea lortu zutenak.

Goizeko seietan eman zitzaion hasiera probari, eta Ernio azpian geratzen diren zortzi herriak zeharkatzen zituen ibilaldiari ekin zioten partaideek. Eguraldia ez zen oso ona izan, eta bidea lokatzez beteta zegoen, baina euririk ez zuen egin, eta antolatzaileak gustura geratu ziren.

Ibiltariak ere esperientzia ona izan zela azaldu zuten behin proba bukatu ondoren, nahiz eta lehen kontrolguneetan ilaratan zain egon behar izan.

Behin Hernialdera itzulita, erregularrenari saria eman zitzaion. Arkume bat eraman zuen, eta beste zazpi lagunek beste hainbat sari eraman zituzten, udalek zozketaz banatuak. Hurrengo aldia, hementik bi urtera egingo dena, Erretilen hasi eta bukatuko da.

## JOXEAN AZKUE ▶ ANTOLATZAILEA

## «Lehen aldia antolatzeko galduta ibili ginen behin baino gehiagotan»

Ernioko gurutzeak 50 urte egin zituela eta antolatuta zuten ibilaldi honen lehen edizioa. Zazpi urte hauetan laugarren aldia izan du aurtengoak, eta asperitu artean jarraitzeko asmoa duela dio Joxean Azkuek.

**Nondik nora sortu zen ibilaldi hau antolatzeko ideia?**

Duela zazpi urte mende erdia bete zuen Ernioko gurutzeak. Auzolaneari aritu zirenei omenaldi egin zitzaion, liburu bat atera zen... Behin otu zitzaigun zortzi herriak batzen zituen ibilaldia egin zitekeela agian, eta asteberka batean neurtzera atera ginen. Hamabi orduz ibili



Ibiltariak atseden hartzen Aiako plazan. JOXEMI SAIZAR



Zeltungo bidean eguzkiak gozatzeko aukerarik izan zen. JOXEMI SAIZAR

ginen, eta batzutan erdi galduta. Azkenean distantzia eta denboraz egokia zela ikusi genuen, eta antolatzeara erabaki genuen.

**Zenbat jende behar da horrelako zerbait antolatzeko?**

Egunean bertan 30en bat lagun aritzen gara, kontrolgune bakoitzean bi pertsona behar dira, janaria eramateko beste batzuk... Baina bestela, antolantza lanetan dozena bat lagun edo ibiltzen gara.

**Eta beti jende bera zarete, edo berririk sartzen da?**

Gehiengoak betiko jendea gara. Oso zaila da jende berria sar-

tzea. Guk ilusioa badugu behintzat, beraz jarraituko dugu ahal den artean.

**1.800 ur botella, 1.400 jogurt, beste 130 kilo naranja... nola lortzen da hori dena?**

Etxe babesleek publizitate truk ematen dizkigute, edo merkeago utzi. Gero zozketarako opariak ere berdin. Aurtun Tolosaldea Garatzenek triptikoa banatzen lagundu digu, eta egun horretan lan egiten duen jendeak musutruk egiten du. Udalen laguntza ere ezinbestekoa da, aurrekontuaren kargu hartzen dute, eta bihotzez eskertzen diegu. ◀

## TELEFONOAK ▶

## LARRIALDIAK

▶ 112

**Alegia-Altzo-Amezket**-Abaltzisketa-Albiztur. Osasun zentroa: 943 65 32 12  
**Anoeta-Alkiza-Hernialde**. Medikua: 65 23 39  
**Asteasu**. Medikua: 69 24 23  
**Baliarrain**. Medikua: 88 90 03  
**Bidegoian**. Medikua: 68 11 34  
**Ibarra-Belauntza-Berrobi-Gaztelu-Leaburu**. Osasun etxea: 67 24 11  
**Ikaztegieta**. Medikua: 65 33 29  
**Lizartza**. Medikua: 68 20 77  
**Tolosa**.

▶ Anbulatorioa, larrialdiak: 46 11 11  
▶ San Esteban, hitzordua eskatzeko: 00 68 00  
▶ Gernikako arbola, hitzordua eskatzeko: 00 69 00  
▶ Amaroako dispensarioa: 67 26 37  
▶ Asunzion klinika 67 57 99 - 67 53 90 (larrialdiak)  
▶ Udaltzaingoa: 67 58 58  
▶ Tolargi: 65 00 16  
▶ Ur kontsultoria: 902 30 22 22  
▶ Iurramendi egoitza: 67 03 25  
▶ DYA: 943 67 25 36  
▶ Gurutze gorria: 943 67 48 88 - 943 - 65 14 25  
▶ Ertzaintza: 943 53 88 20  
▶ Tolosa gasa: 67 53 20  
**Villabona-Aiztondo**. Anbulatorioa: 00 69 70  
**Zizurkil**. Aiztondo zerbitzuen mankomunitatea: 69 39 30

## GARRAIOAK

▶ Renfe Tolosa: 65 28 89  
▶ Donostiako autobusa: 36 17 40  
▶ Tolosaldea bus: 65 06 21  
▶ Taxia: 67 04 20

## GUARDIAKO FARMAZIA

**Gaur**. Tolosa M. I., Kale Nagusia 7, (Tolosa). 943 67 06 408.

## TOLOSALDEKO HITZA

**Publizitatea**. 661 67 88 18. tolosaldean\_public@hitza.info  
**Tolosa**. 687 41 00 82 - 687 41 00 33. tolosa@hitza.info  
**Villabona-Aizt**. 687 41 00 22. villabona\_aiztondo@hitza.info  
**Anoetaldia**. 687 41 01 18. anoetaldia@hitza.info  
**Ibarraldia**. 687 41 00 32. ibarraldia@hitza.info  
**Alegialdea**. 687 41 00 34. alegialdea@hitza.info

## IRAGARKI LABURRAK ▶

## LANA

**Emakumea**. Emakume bat behar digu etxeko lanak egin eta haur bat zaintzeko (19:00etatik 21:00etara). Tlf: 943-675895.

## SALGAI

**Etxea**. Iurramendi ibiltokian etxe unifamiliarra salgai. 3 solairu, garajea, bi terraza eta bi jardin. Interesatuak deitu: 667-986916.

BERROBI ▶ KULTURA

# Adin guztietako lagunentzat, abian da XIV. Kultur Astea

Herriko talde ugari antolatuta, larunbata bitarte ekitaldi ugari izango dira



Buruhandiak, atzo, Kultur Astearen hasieran. D. GIBELALDE

## DANI GIBELALDE

Azken urteetan bezala, aurten ere kultur aste «duin bat» antolatzen saiatu dira herriko hainbat talde. Adin guztietako jendearentzat ekitaldi atsegingarriak prestatu dituzte, «herri guztiak parte hartu ahal izateko». Kultur Astearen hamalau garren edizioa da aurtengoa, eta beste urte askoan antolatzen jarraitzeko asmoa dute.

Begi-Gorri Gaztetxeak, So-lastoki Jubilatutako Elkarteak, Ekintza Guraso Elkarteak, Urreburu Pilota Elkarteak, Berrobiko Eskolak, eta Udalak elkarlanean antolatu dute Kultur Astea. Herriarrentzat gustuko egitaraua prestatzen saiatu dira, eta ekitaldietan jendea parte hartzea animatzeaz

gain, herritarren laguntza eskertu nahi izan dute.

Atzo hasi zen Kultur Astea. Buruhandiak eta gozokiak izan ziren lehenik, haurren gozamerako. Ondoren, herriko pilotalekuan Ibarako Belabieta kiroldegiko Gimnasia Erritmika Taldeko gaztetxoek ikuskizuna izan zen.

## Ipuin kontaketa, gaur

Gaur udal liburutegian haurrei zuzendutako ipuin kontaketa saioa eskainiko du Joseba Ramirezek. Bihar, seme-alaben autonomia eta autoestimaren inguruko hitzaldia emango du Garbiñe Merinok. Era berean, Etxolan haurtzaindegi zerbitzu berezia ezarriko dute.

Etzi Gaztetxean, mus txapel-

## EGITARAUA ▶

### GAUR

**17:30.** Ipuin kontaketa Joseba Ramirezekin, liburutegian.

### BIHAR

**17:30.** Garbiñe Merinoren eskutik, *Gure seme-alaben autonomia eta autoestima* hitzaldia liburutegian.

### OSTEGUNA

**17:00.** Mus txapelketa Begi-Gorri gaztetxean.

**18:00.** Sukaldaritza erakusketa Bide-Ona elkarte gastronomikoan, Felix Belauntzararen sukaldariaren eskutik.

keta izango da, eta sukaldaritzaren erakusketa dotorea ipiniko du Felix Belauntzararekin Bide-Ona elkartearen. Erakusketan ipintzen dituzten platerak bertara hurbiltzen diren artean zozketatu dira. Egun horretan ere haurtzaindegi zerbitzua izango da.

Ostiralean, eskolako haurren antzezkiuna, literatur lehiaketako sari banaketa, eta buruhandiak izango dira. Iluntze-

### OSTIRALA

**17:30.** Eskolako ikasleen emanaldia *Antzerki, olerki eta musikarekin munduari bira* izenekoan, Etxolan. Jarraian, literatur lehiaketako sari banaketa izango da. Era berean, buruhandiak egongo dira.

**21:00.** Herri afaria izango da Urkolan.

### LARUNBATA

**16:00.** Urreburuko gaztetxoek artean pilota partiduak jokatuko dituzte. Jarraian, VIII. Toka Txapelketa izango da. Amaitzeko, txakoli dastaketa udaletxe aurrean.

an, herri afarian bilduko dira berrobitarrak Urkola tabernan.

Larunbatean amaituko da aurtengo Kultur Astea. Kirol ekitaldiak izango dira nagusi; besteak beste, Urreburuko gaztetxoek pilota partiduak ikusi ahal izango dira. Ondoren, VIII. Toka Txapelketa jokatuko dute, eta amaitzeko, txakoli dastaketa izango da udaletxe aurrean.

IBARRA ▶

## Ipuin kontalaria ariko da gaur liburutegian

Kultur Etxean Pello Añorga ipuin-kontalariaren saioa izango da gaur 18:00ean. Saioa 4-5 urteko haurrei zuzenduta dago eta Udal Liburutegiak antolatzen du.

BERASTEGI ▶

## Prozesioa, meza eta bazkaria San Isidro egunean

Larunbatean, San Isidro egunean, prozesioa egingo da eguerdian, udaletxetik San Martin parrokiaraino. Ondoren Gaztainondo elkartearen bazkaltzeko bilduko dira jubilatutakoak. Osteguna da bazkarirako izena emateko azken eguna; Gaztainondon egin daiteke, 9 euro ordainduz, 16:00etatik 19:00etara.

IBARRA ▶

## Pegatina bildumazaleen festa larunbatean

Pegatina Bildumazaleen III. Topa-Festa izango da larunbatean. Atzotik Gaztetxean pegatinen erakusketa dago zabalik 19:00etatik 21:00etara. Larunbatean egun osoan izango da ikusgai erakusketak. Era berean, pegatina trukaketak, herri bazkaria, eta balorazioa izango dira.



## Artola-Zeberio irabazle Mus Txapelketan

**TXARAMA** ▶ Luis Miguel Artola eta Asier Zeberio gailendu ziren Txarama elkarteak antolatutako XXIV. Etxeberritxuren Oroimenezko Mus Txapelketan. Apirilaren 24ean jokatu zen aipatu txapelketa, eta jende

ugarik parte hartu zuen. Jose Luis Adurriaga eta Jose Manuel Zeberio izan ziren bigarren sailkatuak. Argazkian, irabazleak txapela buruan dutela, bigarren sailkatuek lagunduta Txaramako elkartearen. TOLOSALDEKO HITZA

## hilberriak ▶

eskela hartzten dira: 19:00ak arte ▶ 687 530258 ▶ tolosa@tolosaldeko-hitza.info

**Manuel Arrizabalaga Olano**  
 Jauna

**BELAUNTZAKO UDALA**

BELAUNTZA, 2004ko maiatzaren 11

ALEGIA ▶ KULTURA

# Ura, margo gehienetako erreferentzia

Alejandro Gonzalezen margoak hilaren amaiera arte egongo dira ikusgai

OLAIA ESKITXABEL

Alejandro Gonzalez anoetarren oleoak eta akrilikoak aurkitzen dira erakusgai Jubilatuen tabernan.

Hamahiru koadrok osatzen dute erakusketa eta gehienetan ura da margoen ardatza: Itsasoa, txalupak, Donostiako paisaiak... Gaez hartutako irudiak islatu ditu Gonzalezek margo gehienetan.

Uraz gain, bestelako paisaiak ere badira margoetan. Soriako paisaia lehorrak, Txin-

doki, zelai koloretsuak, eta, bodegoiak ere ikus daitezke bi koadrotan.

## Margolari sena

Orain dela 15 urte inguru hasi zen Alejandro Gonzalez margotzen; baina betidanik izan du eskulanezikoa zaletasuna: egurra tailatzen, bastoiak egiten... aritzen da aspaldidanik.

1999an hasi zen margoak erakusten eta orduz geroztik pareta askotan zintzilikatu ditu bere lanak.



**Donostia.** Donostiako paisaia ugari ikus daitezke Alejandro Gonzalez margolariaren erakusketan; hala ere, bestelako paisaia ugari ere aurkitzen dira: Txindoki, Soriako lautadak... O.ESKITXABEL



**Bodegoiak.** Erakusketan bi bodegoi aurkitzen dira; euskal produktuak ikus daitezke bertan. O.ESKITXABEL



**Zelaiak.** Kolore biziko lautada margotu du Gonzalezek kasu honetan. O.ESKITXABEL

ALEJANDRO GONZALEZ ▶ MARGOLARIA

## «Paisaia aurrean dudan bitartean margotzea gustatzen zait»

Margotzen bere kasa eta ekinan ikasi duen horietakoa da Alejandro Gonzalez.

**Zer du gauak egunak ez duena?**

Donostiak, esaterako, gaez xarma berezia izaten du; askotan, gaez pasiatzen egon eta orduak eman ditzakezu paisaiari begira. Etxeratzean, ordea, irudia ezabatzen da. Mar-

gotuz gero, betirako jasotzen duzu ikusitakoa.

**Paisaia aurrean duzula margotzen al duzu?**

Horrela margotzea gustatzen zait; baina askotan ezinezkoa izaten da (inguruan jende asko dagoelako, denborarik ez dudalako...). Orain, askotan, paisaiari ateratako argazkiatik margotzen dut. ◀



**Gaeko paisaiak.** Gaeko paisaia ugari ikus daitezke Jubilatuen tabernan dagoen erakusketan; ez dira ilunak, hala ere, margoak. Argiak uretan isladatuta agertzen dira goiko argazkian. O.ESKITXABEL

## IRAGARKI LABURRAK ▶



San Frantzisko etorb. 47- beheak  
TOLOSA  
Tel.: 943 65 50 37  
Faxa: 943 65 09 44  
e-mail: ernio@inmoernio.com  
www.inmoernio.com

**Tolosa.** Erremontari kalean, guztiz berritutako apartamentua, gazteentzako aproposa. 138.233 euro.

**Tolosa.** Kale Nagusian, 55 m<sup>2</sup>ko etxebizitza salgai; bi logela, sukaldea, egongela eta komuna. Egoera ezinhobean. 155.061 euro.

**Tolosa.** Erremontari kalean, bi logelako apartamentua saltzen da. Oso egoera onean. 159.268 euro.

**Tolosa.** Erremontari kalean, bost urteko eraikuntza berria apartamentua salgai. Berokuntza eta igogailuarekin. Adineko pertsonentzat aproposa.

**Tolosa.** Enperadore kalean etxebizitza salgai; bi logela, sukaldea,

egongela eta komuna. Sartzeko moduan. Berokuntzarekin. 142.440 euro.

**Tolosa.** Bidebieta auzoan, hiru logelako pisua salgai. Berogailuarekin eta hainbat berrikuntza eginda.

**Tolosa.** Larramendi, Pisu ederra garajarekin salgai.

**Tolosa.** Laskorain kalean berritutako pisu ederra salgai; hiru logela eta balkoia. Garajea izateko aukera.

**Tolosa.** Gorosabel kalean, 120 m<sup>2</sup>ko etxe ederra saltzen da, berogailuarekin eta hainbat berrikuntza eginda.

**Tolosa.** Lurramendi auzoan, Sam-eko bi etxe atxiki salgai, lorategi eta jardinekin. Ikustekoak!.

**Tolosa.** Lurre auzoan, apartamentua salgai, adineko pertsonentzat edo mugitzeko arazoak dituztenentzat aproposa.

**Ibarra.** Julian Gaiarre kalean. Berritutako etxebizitza salgai. Hiru logela, sukaldea, egongela eta komuna. Berogailuarekin. Guztiz kanpoaldera.

**Ibarra.** Euskal Herria kalean hainbat etxebizitza salgai; hiru logela, sukaldea, egongela eta komuna.

**Berogailuarekin. Guztiz kanpoaldera.**

**Irura.** Duplex zoragarria salgai, trasteleku eta garajarekin. Terraza ederra.

**Berrobi.** Bi logelako pisu merkea. Toki lasaia. 141.839 euro.

**Legorreta.** 88 m<sup>2</sup>ko etxebizitza saltze da. Ikusmen ederrekoa eta oso eguzkitsua. 159.268 euro.

**Alegia.** Hiru logelako pisu ederra salgai, eguzkitsua eta dena kanpoaldera. Ikusteko modukoa. 155.061 euro.

**Alkiza.** Eraikuntza berriko azkenengo etxe bifamiliarra salgai.

**Lizartza.** Etxe ederra salgai herrian bertan. Erreforma egiteko. 171.288 euro. Sekulako aukera!.

**Baserriak.** Baserriak aukeran ondoko herrietan: Asteasu, Tolosa, Tolosaldea, Bidania, Aia...

**Pibilioiak.** Aukera handia; salmantan eta alokairuan.

**Borda.** Salgai Urnietan.

AGENDA ▶

DEIALDIAK

**Alegia.** Hilaren 14an Miarriz aldera egingo den irteerara era joateko izen-ematea bihar, Jubilatuko elkartean, 11:30etan. 20 euro ordaindu behar dira izena ematerakoan.

**Ibarra.** Nazio Mailako III. Pegatina Mostra Gaztetxean 19:00etatik 21:30era, hilaren 16ra. Urtero egiten den pegatina bildumazaleen topa-festaren baitan.

**Tolosa.** AHT Gelditu! Elkarlanak antolatutako jardunaldietan, AHTren aurkako arrazoiak eta egitasmoaren egungo egoera hitzaldia Kultur Etxean 20:00etan. Partaideak: Iñaki Antigüedad, Josu Larrinaga eta Mikel Alvarez. Aurkezlea: Joxemi Saizar (HITZA).

**Tolosa.** IMSERSOren oporretarako izen-ematea Udaleko Gizarte Zerbitzuan, Haritze elkartean eta Aldundiko Zentro Gerontologikoan hilaren 14a bitarte.

**Tolosa.** XIV Orduko Ibilaldirako izen-ematea 10:00-13:00 eta



## Tolosatik Arantzazura oinez

**TOLOSALDEA** ▶ Eskualdean aspaldidanik datorren tradizioari jarraituz eta XIV Orduko Ibilaldiaren prestakuntzaren barruan, Tolosaldeko mendizale koadrila honek Tolosa-Arantzazu ibilaldia egin zuen oinez maiatzaren 2an, Santutxu, Mandubia, Aztiria, Brinkola eta Kataberak pasatuz. Guztira hamabi ordu inguru behar izan zituzten. Argazkian, taldea ibilaldia burutu ondoren, Arantzazuko santutegiaren aurrean. J.SAIZAR

16:00-19:00, Aralarko Adiskideen egoitzan (Araba 5, behea, Tolosa).

**Tolosa.** Autobus bereziak Santa Klaratik Asuncion klinikara: goizez 7:45etik 13:15era eta arratsaldez 16:45etik 20:45era. Ordu erdiero, laurdenetan eta laurden gubxietan.

**Zizurkil.** Lurraldeko eskualde hotzetatik proiektzioa Juan Vallejoren eskutik, 20:00etan Abulondo kultur etxean.

ERAKUSKETAK

**Alegia.** Alejandro Gonzalez margoak ikusgai Jubilatuko Elkartean: olioak eta akrilikoak.

**Hernalde.** Olivia Sanchezen akuarelak Ostatuan.

**Tolosa.** Anjel Cuerdoren argazki erakusketa Aranburu Jauregian ekainaren 12a bitarte.

**Tolosa.** Kubako haurren marrazki erakusketa gaurtik hilaren 14ra Kultur Etxean.

ZINEMA

**Tolosa.** La ventana secreta, Leidor zineman 19:30ean eta 22:30ean. Ikuslearen eguna.

ZORION AGURRAK ▶



URTE ASKOAN

Dagoeneko 8 urte, Mikel!

Urte askoan eta musuak zure arreba eta familia osoaren partetik.



URTE ASKOAN

Haritz Iturbe Antolin (Zizurkil). Gaur 6 urte. Familia guztia eta Tolosako osaba Manu eta izeba Nekaneraren partetik.



URTE ASKOAN

Eneko Lopez Etxenagusia (Tolosa). Gaur 3 urte. Aitona eta osabaren partetik.



URTE ASKOAN

Joseba Zinkunegi (Bidegoian). Gaur 5 urte. Zorionak familiaren partetik.



URTE ASKOAN

Josune Sarasola 'Izaskun' (Amezketeta). Gaur 24 urte. Aitaz, Iritza eta etxekoekin partetik zorionak eta musu handia.



URTE ASKOAN

Xuban Munita Saralegi (Tolosa). Gaur 6 urte. Zorionak familiaren partetik.

**DENDA HAUEK Tolosaldeko HITZAren LAGUNTZAILEAK DIRA**  
 Egin itzazu zure erosketak bertan

- Pottoko Haur Jantziak
- Nerea Lentzeria
- Mikel Izagirre
- Ileapaintzaileak
- Iriarte Lentzeria
- Berezi Neurri Beréziak
- Factory
- Elite Kirolak
- Bazar Amiano
- Kopibat
- Cid Bitxitegia
- Lizarribar Oinetakoak
- Arri Oinetakoak eta Konponketak
- Desgaste Oinetakoak
- Aralar Kirolak
- Muebles Garces
- Poxpolin Haur Jantziak
- Oski
- Garikano 1815
- Azpiko Arropa
- Amala Lentzeria
- Kiara Bitxitegia
- Poxpolin Enmarkazioak eta Opariak
- Milar Electro Hogar
- Imen Bitxitegia
- Pressto Tintoreria
- Oñativia
- Lurrindenda
- Elola Aitzariak
- La Vasconia
- Axular Oinetakoak
- Iratzar Eriojutegia
- Zumeta Elektrogailuak
- Arretxe Mertzzeria
- Ugarte Bitxidenda
- Bitxilore
- Juan Luis Bitxitegia
- Ezenarro Leihokak
- Kanikak arropa denda

**HITZAREN HARPIDEDUN TRARTELARENKI**  
 %5\*-eko BEHERAPENA IZANGO DUZU ZURE EROSKETETAN.  
 (Martxoetik ekainera)

**EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN!**

\*Promozio hau ez zale beste beherapenei gehituko. Eskura ordaindutako erosketetan bakarrik aplikatuko da.

## HITZA, zorion agurren

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, tartea ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri:

HITZAren egoitzara (Araba etorbidea, 5 behea - Tolosa) Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago. Mila esker!